LEHIAKETA. Iragarkia, Galartzako (Elorrio) 3.15 Burutze-unitatea hiritzeko lanak egiteko kontratua esleitzeko dena (6/05). 7907

LEHIAKETA. Iragarkia, Bilboko Krug enpresarenak ziren lursailetan dauden eraikinak eraisteko lanak burutzeko kontratua esleitzeko dena (7/05). 7909

**HAURRESKOLAK PARTZUERGOA**

IRAGARKIA, 0 urteko, urte 1eko eta bitarteko taldekatze gelen ekipamendu eta ikasmateriala hornitu, entregatu eta instalatzeari buruzkoa. 7911

# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

**2248**

81/2005 DEKRETUA, apirilaren 12koa; honen bidez, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu da eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak izango dituen eginkizunak ezarri.

Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legearen berariazko helburua Estatuan lehia nahikoa izatea bermatzea eta onura publikoaren aurkako erasoetatik babestea da. Helburu hori lortzeko asmoarekin, lege horretan hainbat erregela ezarri dira enpresen arteko lehia askea errazteko; besteak beste, lehia eragozten, murrizten edo aizuntzen duten portaerak debekatu dira, bai eta enpresa batek edo batzuek euren nagusitasunaz baliatuta abusuak egitea ere. Legeak Estatuari ezarri dizkio eskumen eta eginkizun horiek guztiak, eta horiez gainera Legean betearazpideaz, esku hartzeaz, baimenez eta zehapenez ezarritako guztiak ere bai.

1999ko azaroaren 11n Auzitegi Konstituzionalak lege honen konstituzionaltasuna dela-eta aurkeztutako bi errekurtsori buruzko epaia eman zuen (bata Eusko Jaurlaritzarena eta bestea Kataluniako Generalitateko Kontseilu Betearazlearena). Epai horretan Auzitegi Konstituzionalak adierazi zuen Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legeko 4., 7., 10., 11. eta 25. a) eta c) artikuluetan, zuzenean zein aipamen bidez, ageri den «Estatuko merkatu osoan edo haren za-

CONCURSO. Anuncio para la adjudicación del contrato de obras que tiene por objeto la ejecución de las obras de urbanización de la Unidad de Ejecución U.E.3.15, Galartza, en Elorrio (6/05). 7907

CONCURSO. Anuncio para la adjudicación del contrato de obras que tiene por objeto la ejecución de las obras de Demolición de las edificaciones ubicadas en los antiguos terrenos de la empresa Krug en Bilbao (7/05). 7909

**CONSORCIO HAURRESKOLAK**

ANUNCIO relativo al suministro, entrega e instalación de equipamiento y material escolar para aulas de 0 años, aulas de 1 año y aulas de agrupamiento. 7911

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

**2248**

DECRETO 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Ley 16/1989, de 17 de julio, de Defensa de la Competencia tiene como finalidad específica el garantizar la existencia de una competencia suficiente en el conjunto del Estado y protegerla contra todo ataque contrario al interés público. Para la consecución del objetivo pretendido, el citado texto legal establece una serie de reglas tendentes a facilitar la libre competencia entre las empresas, prohibiendo las conductas que pudieran impedir, restringir o falsearla, así como los abusos de posición dominante susceptibles de producirse por una o varias empresas, atribuyendo al Estado el ejercicio de todas esas competencias y funciones, así como las de carácter ejecutivo de intervención, autorización y sanción contenidas en el propio texto legal.

La sentencia del Tribunal Constitucional de 11 de noviembre de 1999, dictada en sendos recursos de inconstitucionalidad promovidos, respectivamente, por el Gobierno Vasco y el Consejo Ejecutivo de la Generalitat de Cataluña, declaró la inconstitucionalidad de la cláusula «en todo o en parte del mercado nacional» contenida expresamente o por remisión en los artículos 4, 7, 10, 11 y 25 a) y c) de la Ley 16/1989, de 17 de julio, de Defensa de la Competencia. La consecuencia ma-

ti batean» klausula Konstituzioaren kontrakoa dela. Ebazpen horren ondorioz barruko merkataritzaren arloko eskumenak dituzten autonomia erkidegoek lehia askearen inguruko gaietan esku har dezakete eta arlo horretako baimenak eman eta zehapenak ezar ditzakete, baldin eta jarduerak erkidegoaren barruan egiten badira edo autonomia erkidegoaren lurralde-eremutik kanpo hedatzen ez badira. Epaian aitortu zen autonomia erkidegoek trusten arloan zilegi ez diren jardueretan soilik dutela betearazte-eskumena, hain zuzen ere Lehiaren Defentsari buruzko Legeko lehenengo tituluko I. kapituluan finkatutako esparruan; beraz, autonomia erkidegoen eskumenetatik kanpo daude kontzentrazio ekonomikoen kontrola eta lehian eragina izan dezaketen laguntza publikoen kontrola.

Auzitegi Konstituzionalaren epai horren ildotik, otsailaren 21eko 1/2002 Legea eman zen, Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzkoa. Lege horren helburua uztailaren 17ko 16/1989 Legean ezarritako betearazte-eskumenetatik Estatuari eta autonomia erkidegoei dagozkienak zehaztea eta mugatzea zen. Horrez gainera, arlo horretako eskumenak dituzten autonomia erkidegoetan lehiaren defentsarako organoak sortzea aurreikusi zen.

Argi dago lehiaren defentsa oso garrantzitsua dela demokrazia eta zuzenbidea oinarri dituen gizarte ereduan, sistema ekonomikoaren funtsean dauden printzipioen ikuspuntutik. 1989ko Legeak barruko sistemak sortzeko ibilbide onuragarria abiarazi zuen; sistema horien bidez, merkatu askearen analisiaren eta diziplinaren mekanizazioa lantzen da Europar Batasunaren eraikuntza ekonomikoa sustatzeko eta bultzatzeko.

Nahiz eta jakin Euskadiko Autonomia Estatutuko 10.27 artikuluaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoak duela barruko merkataritzaren arloko eskumen esklusiboa, prezioen gaineko politika orokorrari, Estatu barruko ondasunen zirkulazio askeari eta lehiaren defentsarako legeriari kalte egin gabe, kontuan eduki behar da Lehiaren Defentsari buruzko Legearen arrazoi-azalpenean adierazi dela lehiaren defentsarako politika horizontala dela; bada, horizontaltasun horrek eragina izango du lehiaren defentsarako organoen antolamenduan bertan, bai eta merkataritza eta ogasuna arautzeekimenean txertatzeko moduan ere. Nahitaez hartu behar da kontuan barruko merkataritzak, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko politikak eta Euskadiko ekonomiaren sustapenak, garapenak eta plangintzak garrantzi oso handia dutela lehiaren defentsan.

Hori dela-eta, ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoan lehiaren defentsarako organoak sortzea eta jardunean hastea, Auzitegi Konstituzionalaren 1999ko

terial del citado pronunciamiento es que a las Comunidades Autónomas con competencias en materia de comercio interior les corresponde el ejercicio de las funciones ejecutivas de intervención, autorización o sanción en asuntos relacionados con la libre competencia, cuando se trate de prácticas desarrolladas en ámbitos intracomunitarios o restringidas al mercado correspondiente al ámbito territorial autonómico. Se reconoce, en la Sentencia, la competencia ejecutiva de las Comunidades Autónomas únicamente en materia de ilícitos antitrust del Capítulo I del Título Primero de la Ley de Defensa de la Competencia, quedando fuera del ámbito competencial autonómico el control de las concentraciones económicas y el control de las ayudas públicas que puedan afectar a la competencia.

Derivado del fallo del Tribunal Constitucional, se dictó la Ley 1/2002, de 21 de febrero, de Coordinación de las Competencias del Estado y las Comunidades Autónomas en materia de Defensa de la Competencia, con el objetivo de definir y delimitar las competencias ejecutivas del Estado y las Comunidades Autónomas contenidas en la Ley 16/1989, de 17 de julio, previendo, además, la propia Ley de Coordinación la creación de órganos de defensa de la competencia en las Comunidades Autónomas con competencias en esta materia.

Es notorio que la materia Defensa de la Competencia es un elemento relevante en el modelo social, democrático y de derecho desde la perspectiva de los principios que inspiran su sistema económico. La Ley de 1989 inició una trayectoria positiva de creación de sistemas internos en cuyo funcionamiento se coadyuva a mecanizar el análisis y la disciplina del libre mercado, para servir y apoyar al soporte de la construcción económica de la Unión Europea.

Sin desconocer la dicción del artículo 10.27 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, que atribuye a la Comunidad Autónoma la competencia exclusiva en materia de comercio interior, sin perjuicio de la política general de precios, la libre circulación de bienes en el territorio del Estado y de la legislación sobre defensa de la competencia, es bien cierto que ya en la exposición de motivos de la Ley de Defensa de la Competencia se expresaba el carácter horizontal de la política de defensa de la competencia, horizontalidad que tendrá su incidencia en el propio modelo organizativo de los órganos de defensa de la competencia y en la participación y vinculación de las áreas de comercio y de hacienda en la iniciativa normativa. No cabe desconocer que tanto el área de comercio interior, como la política de defensa de los consumidores y usuarios así como la de promoción, desarrollo y planificación de la actividad económica del País Vasco, tienen un indudable peso en la Defensa de la Competencia.

En este contexto, resulta necesaria la creación y puesta en funcionamiento en la Comunidad Autónoma de Euskadi de los órganos de defensa de la competencia con

azaroaren 11ko epaiaren ondoriozko eskumen-banaketan egokitutako eskumenak behar bezala erabiltzeko.

Horretarako, dekretu honen bidez Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu da. Organo hori Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzari atxikita egongo da, baina ez da egongo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egitura hierarkikoaren barruan. Beraz, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren jarduna ez da euskal administrazio publikoari lotuta egongo eta, gainera, bere eginkizunak autonomia osoarekin eta antolamendu juridikoari erabat atxikita bete beharko ditu; jardun-printzipio horiek berariaz bildu dira dekretu honetara.

Auzitegiaren osaera dela-eta, orain arte Estatuko Lehiaren Defentsarako Auzitegiak esku hartu duen auzietan ezarritako jarduketekin bat datorren egitura hautatu da, hain zuzen ere indarreko eskumen-banaketaren arabera, gaur egun Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren eskumeneko izango liratekeen auzietako jarduketekin bat datorrena. Ildo horretatik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegian hiru kide izatea nahikoa eta egokitzat jo da eratxiki zaizkion eginkizunak ondo betetzeko bere eskumenen eremuan eta bere lurralde-esparruan. Halaber, Auzitegiaren funtzionamendurako eta jardunerako, hiru kideak txandaka izango dira lehendakari, beti ere bi urteko aldika.

Auzitegiaren lehendakaria izendatzeko formula berri horrek ez du aldezten eredu presidentzialista; aitzitik, berari esker Osoko Bilkurak eginkizun zabal-zabalak izango ditu eta erabakiak kide guztien artean hartuko dira.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiko kideak goi-kargudun izango dira, hain zuzen ere zuzendari mailakoak; horren helburua organo iraunkorra eratzea da: kideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko goi-kargudunen bateraezintasunen araubidearen menpe egongo dira eta legegintzaldietako egutegiek ez dute eraginik izango beraiengan, karguen indarraldia sei urtekoa izango baita (karguan bi aldi bakarrik eman daitezke) eta kargutik uztailaren 17ko 16/1989 Legeko 23. artikuluan ezarritako kasuetan soilik ken baitaitezke. Horri guztiari esker Auzitegiko kideek independentziarekin bete ahal izango dituzte euren eskurantzak.

el fin de dar una adecuada respuesta al ejercicio efectivo de la distribución competencial que en dicha materia se ha configurado como consecuencia de la sentencia del Tribunal Constitucional de 11 de noviembre de 1999.

A tales efectos, el presente Decreto crea el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia como un órgano adscrito a la Viceconsejería de Economía, Presupuestos y Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración Pública, pero que no forma parte de la estructura jerárquica de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y que, por tanto, desarrolla sus funciones de forma independiente de la Administración Pública Vasca, resultando en todo caso imprescindible que el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia ejerza sus funciones con autonomía de gestión y sometimiento pleno al ordenamiento jurídico, principios de actuación que de forma expresa se recogen en la presente disposición.

En cuanto a la composición del Tribunal, se ha optado por una estructura ajustada a las previsiones de actuación derivadas de los asuntos en los que ha intervenido hasta la fecha el Tribunal estatal de Defensa de la Competencia, en los que, de conformidad con la distribución competencial vigente, le habría correspondido actuar al órgano de la Comunidad Autónoma. En este sentido, el número de tres miembros se considera suficiente y apropiado para llevar a buen término las funciones que se atribuyen al Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia en su ámbito funcional y territorial de actuación. Asimismo, a los efectos de funcionamiento y actuación del Tribunal se prevé que sus tres miembros ejerzan la presidencia del mismo de forma rotatoria y por iguales períodos de tiempo de dos años en cada caso.

Esta novedosa fórmula que caracteriza la designación del Presidente o Presidenta del Tribunal no sustenta un modelo presidencialista del mismo, sino bien al contrario se ha optado por un modelo en que al Pleno del Tribunal se le atribuyan las más amplias funciones, resaltando las bondades de su articulación colegiada en la toma de decisiones.

A los miembros del Tribunal vasco se les otorga la consideración de altos cargos con el rango de director o directora, ello con el objetivo de configurar un órgano estable, en el que sus miembros se encuentran sometidos al régimen de incompatibilidades de los altos cargos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y al que no afectan las vicisitudes de los calendarios propios de las diferentes legislaturas, dado que la duración de los cargos lo es por seis años, prorrogables una sola vez por el mismo período de tiempo, pudiendo, únicamente ser cesados del ejercicio de sus funciones en el caso de verificarse alguno de los supuestos que contempla el artículo 23 de la Ley 16/1989, de 17 de julio, lo que confiere a los miembros del Tribunal otro elemento que garantiza la independencia en el cumplimiento de sus atribuciones.

Auzitegiko kideak Gobernu Kontseiluak izendatuko ditu Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak proposatuta, lehiaren defentsaren horizontaltasuna aintzat hartuta. Auzitegiko kide izateko ezinbesteko da Auzitegiaren eskumeneko gaien inguruko betekizun objektibo batzuk betetzea, erabakiak teknikoki egokiak izango direla bermatzeko.

Xedapen honetako antolamendu-ikuspegitik, proposatutako ereduak dauden baliabide publikoak neurrian erabiltzeko asmoa du. Hori gauzatzeko, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak berak emango dizkio Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari ondo jarduteko behar dituen giza baliabideak eta baliabide pertsonalak.

Lehiaren Defentsarako Zerbitzuari dagokionez, prestatu den antolamendu-ereduaren arabera zerbitzu horren eginkizunak administrazio honetako berariazko organo bati ezarriko zaizkio, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari, Administrazioaren oraingo antolamendu-egiturara egokitzeko; izan ere, Gobernu Legearen arabera antolamendu-unitaterik txikiena zuzendaritza da.

Dekretuak bost kapitulu, lau xedapen gehigarri eta hiru azken xedapen ditu.

Lehenengo kapituluaren ardatza Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia da eta ondokoak ere zehazten ditu: sorrera, jardun-printzipioak, bereganatuko dituen eskumenak (uztailaren 17ko 16/1989 Legean ezarritakoak), hala nola, osaera, eta kideen izendapena, karguaren iraupena eta izango duten maila, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko goi-karguak, alegia.

Auzitegiak bi organo izango ditu, lehendakaria eta Osoko Bilkura, eta bakoitzak bere eginkizunak izango ditu. Bi organooi idazkari batek (administrazio honetako abokatua) lagunduko die eta kide anitzeko organoetako idazkariek izan ohi dituzten eginkizunak izango ditu.

Auzitegiaren funtzionamendurako oinarrizko erregelak ezarri dira; horiei esker Osoko Bilkurak, bere burua antolatzeko ahalmenaz baliatuta, barne arautegia prestatu ahal izango du administrazio-jarduna eta zerbitzuen antolamendua zehaztasun handiagoarekin finkatzeko.

Bigarren kapituluan Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren inguruko gaiak jorratu dira. Aurrean aipatu bezala, zerbitzu horren eginkizunak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari ezarri zaizkio; administrazio organo horrek uztailaren 17ko 16/1989 Legean ezarritako egin-

El nombramiento de los miembros del Tribunal le corresponde al Consejo de Gobierno, a propuesta, en razón a ese carácter horizontal que adjetiva a la política de defensa de la competencia, de las titulares de los Departamentos de Hacienda y Administración Pública y de Industria, Comercio y Turismo, debiendo las personas candidatas acreditar una serie de requisitos objetivos directamente vinculados con las materias en las que el Tribunal es competente, que garantizan la solvencia técnica de las decisiones que se adopten.

Desde la perspectiva organizativa que contiene la presente disposición, el modelo propuesto surge con vocación de moderación en la utilización de los recursos públicos existentes lo que queda reflejado en la previsión de que va a ser el propio Departamento de Hacienda y Administración Pública quien proporcione al Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia los medios personales y materiales que sean precisos para su correcto funcionamiento.

En lo que concierne al Servicio de Defensa de la Competencia, el modelo organizativo proyectado se concreta en la asignación de las funciones de dicho servicio a un órgano específico de esta Administración, la Dirección de Economía y Planificación del Departamento de Hacienda y Administración Pública, con la finalidad de ajustarse a la estructura organizativa existente en esta Administración, en la que la unidad organizativa mínima es la dirección, de conformidad con la Ley de Gobierno.

El Decreto se estructura en cinco capítulos, cuatro disposiciones adicionales y tres disposiciones finales.

El capítulo primero se dedica al Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y contiene su creación, sus principios de actuación, las competencias previstas en la Ley 16/1989, de 17 de julio, que asume, así como la composición, el nombramiento, la duración y la consideración de sus miembros como altos cargos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El Tribunal se configura con dos órganos, el Presidente o Presidenta y el Pleno, con expresión de sus correspondientes funciones, que estarán asistidos por un secretario o secretaria, letrado o letrada de esta Administración, cuyas funciones son las propias de quien ejerce dicha responsabilidad en un órgano colegiado.

Se recogen unas reglas básicas de funcionamiento del Tribunal, posibilitando que el pleno del propio órgano, en ejercicio de sus facultades de autoorganización, pueda elaborar un reglamento interno en el que de forma más detallada se contenga su funcionamiento administrativo y la organización de sus servicios.

En el capítulo segundo se recogen las cuestiones relativas al Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Como queda apuntado, las funciones del citado servicio se asignan a la Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco, órgano administrativo que deberá actuar de

kizunak izango ditu eta bertan finkatutako prozedurari lotuta jardungo du.

Errekurtsoen araubidea zehazteko kapitulu osoa behar izan da, hirugarrena, berrikuspena oso garrantzitsua eta berezia baita lehiaren arloan: aski da ohartzea Lehiaren Defentsarako Legean berariazko arautegia ezarri dela gai horri buruz. Bi motatako errekurtsoak egongo dira: batetik Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren egintzen aurka (auziaren edukia ebazten, prozedura baten jarraipena eragozten edo interesdunen babesgabezia sortzen edo haiei konponezinezko kalteak egiten dizkieten egintzen aurka) aurkeztu eta Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak ebatzi behar dituenak; bestetik administrazio bidea agortzen duten Auzitegiaren beraren egintzen aurka aurkezten direnak. Egintza horiek administrazioarekiko auzi-jurisdikzioak ebatzi behar ditu.

Laugarren kapituluan Lehiaren Defentsaren Erregistroa sortu eta araudia finkatzen da. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari atxiki zaio eta zuzendaritza horrek kudeatuko du. Horrez gainera, indarrean dagoen arautegiaren arabera (uztailaren 17ko 16/1989 Legea) erregistratu beharreko egintzak zehaztu dira eta idazpenak nola egin behar diren ezarri da. Idazpenetan berebiziko eragina dute datu pertsonalak babesteko legeriak eta erregistroetara jotzeko eskubideari buruzkoak.

Arlo honetako berezitasun gisa, laugarren xedapen gehigarrian erregistroa kudeatzeko teknika eta baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabil daitezkeela ezarri da. Hori Eusko Jaurlaritzak administrazio eta gobernu elektronikoen arloan abiaraziko dituen ekimen estrategikoetako bat da.

Azken kapituluan, bosgarrenean, Euskal Autonomia Erkidegoan lehia defendatzen duten organoek zuzen jarduteko aginduzko izan behar diren bi printzipio ezarri dira: Administrazioaren gainerako organoek organo horiekin lankidetzan jardun beharra eta arlo honetako espedienteen izapidetzan parte hartzen duten pertsona guztiek haietako datuak isilpean mantendu beharra.

Lehenengo xedapen gehigarrian Auzitegia eratzeko epea ezarri da, bai eta lehen lehendakaria eta hurrengoak izendatzeko modua ere. Bigarren xedapen gehigarrian Gobernu Kontseiluaren esku utzi da Euskal Autonomia Erkidegoak Gatazken Kontsulta-Batzordean izango dituen ordezkariak izendatzea, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak proposatuta (Auzitegiko kideen izendapenean bezala).

acuerdo con las funciones previstas en la Ley 16/1989, de 17 de julio, y según el procedimiento establecido en ese mismo texto legal.

Al régimen de los recursos se dedica un capítulo específico, el tercero, en virtud de la trascendencia y singularidad que la función revisora tiene en la materia objeto de regulación y que se constata en la regulación propia y especial que se da a la misma en la propia Ley de Defensa de la Competencia. Se contemplan dos tipos de recursos, por un lado, los que se interpongan contra los actos del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que decidan sobre el fondo del asunto, impidan la continuación de un procedimiento o produzcan indefensión o perjuicios irreparables a los interesados, sobre los que ha de decidir el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y, por otro lado, los que se interpongan contra los actos propios del Tribunal que ponen fin a la vía administrativa y serán recurribles ante la Jurisdicción Contencioso–Administrativa.

El capítulo cuarto se consagra a la creación y regulación del Registro de Defensa de la Competencia. Se procede a la adscripción de dicho Registro a la Dirección de Economía y Planificación, órgano encargado de su gestión y llevanza. Asimismo, se especifican los actos que van a ser objeto de registro de conformidad con la normativa vigente, constituida por la Ley 16/1989, de 17 de julio, y se determina el modo en el que van a ser practicados los asientos cuestión en la que tiene singular incidencia la legislación en materia de protección de datos de carácter personal y la relativa al derecho de acceso a los registros.

Como particularidad en esta materia, la Disposición Adicional cuarta incluye la previsión de utilización de técnicas y medios electrónicos, informáticos y telemáticos en la gestión del registro, lo que constituye una de las iniciativas estratégicas del Gobierno Vasco en el ámbito de la Administración y Gobierno electrónicos.

En el capítulo final, el quinto, se consagran dos principios de actuación que deben presidir el correcto funcionamiento de los órganos encargados de la defensa de la competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuales son el deber de colaboración del resto de órganos de la Administración con aquellos órganos y el deber de secreto que debe mantener cualquier persona que tome parte en la tramitación de expedientes en esta materia.

La Disposición Adicional primera determina el plazo en el que debe constituirse el Tribunal, así como la forma de nombramiento del primero y de los sucesivos presidentes. En la segunda se atribuye al Consejo de Gobierno la designación de las personas representantes de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la Junta Consultiva en materia de conflictos, a propuesta -al igual que en el caso del nombramiento de los miembros del Tribunal-, de las personas titulares de los Departamentos de Hacienda y Administración Pública y de Industria, Comercio y Turismo.

Bukatzeko, azken xedapenetako lehenengoan bi gauza ezarri dira. Batetik, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa aldatzea lehiaren defentsarako organo berriak bertan txertatzeko; horrek ondorioak izango ditu Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren egituran eta antolamenduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren eginkizunak izango baititu. Bestetik, lanpostuen zerrenda aldatzea; aldaketa legezko prozeduraren arabera egin beharko da.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak proposatuta, Lehendakariak onetsi eta Gobernu Kontseiluak 2005eko apirilaren 12ko bilkuran aztertu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

## I. KAPITULUA
## LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIA

*1. artikulua.–* Sorrera, atxikipena eta egoitza.

1.– Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu da eta Euskal Autonomia Erkidegoan lehia defendatzea izango du eginkizun.

2.– Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak erabateko autonomia hierarkiko eta funtzionalarekin jardungo du eta bere eginkizunak independentzia osoarekin eta antolamendu juridikoari erabat atxikita beteko ditu.

3.– Antolamenduari dagokionean, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzari atxikita egongo da, baina ez da egongo Administrazioaren egitura hierarkikoaren barruan.

4.– Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren egoitza Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren bulegoetan egongo da, Vitoria-Gasteizen. Hori dela-eta, Sailak jarduteko behar dituen giza baliabide eta baliabide material guztiak emango dizkio.

5.– Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak, ekonomiaren eta aurrekontuen kudeaketaren arloan, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzako zuzendaritzek unean-unean dituzten eskumen berak izango ditu.

*2. artikulua.–* Eskumenak.

Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen esparruan, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari dagokio Lehiaren

Para concluir, la Disposición Final primera prevé, por una parte la modificación de la estructura orgánica del Departamento de Hacienda y Administración Pública para integrar en el mismo los nuevos órganos de defensa de la competencia, con los correspondientes efectos estructurales y organizativos en la Dirección de Economía y Planificación, en cuanto que se le asignan las funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma y, por otra, la modificación de la correspondiente relación de puestos de trabajo que deberá ajustarse al procedimiento legalmente previsto.

En su virtud, a propuesta de las Consejeras de Hacienda y Administración Pública y de Industria, Comercio y Turismo, previa aprobación del Lehendakari, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el 12 de abril de 2005,

DISPONGO:

## CAPÍTULO I
## DEL TRIBUNAL VASCO DE DEFENSA DE LA COMPETENCIA

*Artículo 1.–* Creación, adscripción y sede.

1.– Se crea el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia al que se asignan las funciones de defensa de la competencia en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– El Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia actúa con plena autonomía jerárquica y funcional y ejerce sus funciones con plena independencia y sometimiento al ordenamiento jurídico.

3.– El Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia se adscribe orgánicamente a la Viceconsejería de Economía, Presupuestos y Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración Pública, sin formar parte de la estructura jerárquica de la Administración.

4.– El Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia tiene su sede en las dependencias del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco en Vitoria–Gasteiz, que a tal efecto prestará los medios personales y materiales que sean precisos para su funcionamiento.

5.– El Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia tiene, en materia de gestión económico-presupuestaria, las mismas competencias que correspondan en cada momento a las Direcciones de la Viceconsejería de Economía, Presupuestos y Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

*Artículo 2.–* Competencias.

Corresponden al Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia, en el marco de la Ley 1/2002, de 21 de febrero, de coordinación de las competencias del Estado y las Comunidades Autónomas en materia de De-

Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legea aplikatzea arlo hauetan:

a) Lege horren 1., 6. eta 7. artikuluetan ezarritako portaerak xede dituzten prozedurak, otsailaren 21eko 1/2002 Legean ezarritakoarekin bat etorriz; hain zuzen ere, prozedura horietan Auzitegiak hertsapenak edo errekerimenduak egin ahal izango ditu eta zehapen eta isun hertsatzaileak ezarri ahal izango ditu 16/1989 Legeko 9 – 13 bitarteko artikuluetan ezarritakoari lotuta.

b) Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legeko 4. artikuluan aipatutako baimenak ematea.

c) 1/2002 Legean ezarritakoarekin bat etorriz bere lurralde-eremuan bereganatu ahal dituen gainerako eskumen guztiak, baldin eta 16/1989 Legean ezarrita badaude.

*3. artikulua.*– Osaera, kideen izendapena, karguaren iraupena eta araubidea.

1.– Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia hiru kidek (horietako bat lehendakaria) eta idazkari batek osatzen dute.

2.– Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiko hiru kideak Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez izendatuko dira; proposamena Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak egingo dute, batera eta arrazoituta. Aipatu sailburuek ospe handiko legelari, ekonomialari edo antzeko arloetako profesionalak hautatu behar dituzte, lanean gutxienez hamar urtean aritu direnak. Karguak sei urte iraungo du eta izendatuek gehienez ere bi aldi eman ahal izango dituzte karguan.

3.– Aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiko kideek 16/1989 Legeko 23. artikuluan ezarritako arrazoiengatik utziko dute kargua.

4.– Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiko kideak goi-kargudun izango dira, hain zuzen ere zuzendari mailakoak; karguaz jabetu aurretik funtzio publikoan aritu badira, zerbitzu berezietan geratuko dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko goi-kargudunen bateraezintasunen araubidean egongo dira.

5.– Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiko hiru kideak txandaka izango dira lehendakari; lehendakaritxanda bi urtekoa izango da.

*4. artikulua.*– Auzitegiaren organoak.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak bi organo ditu: lehendakaria eta Osoko Bilkura (lehendakaria eta beste bi kideak).

*5. artikulua.*– Lehendakariaren eginkizunak.

1.– Hauexek dira Auzitegiaren lehendakariaren eginkizunak:

fensa de la Competencia, la aplicación de la Ley 16/1989, de 17 de julio, de Defensa de la Competencia, en los ámbitos siguientes:

